

## Ijito herriaren erabateko sustapena eta partaidetza soziala lortzeko bidean

*jardunaldiak*

Fernando Fantovaren hitzaldiaren eduki nagusiak. Hitzaldiaren izenburua:

# Politika publikoetan parte hartzeko prozesuak: praktikatik egindako gogoetak

*«Boterea, gainerakoak mendean izatearen zentzuan, gehiegizko asertibitatea da. Hori hobekien gauzatzen duen gizarte egitura hierarkia da [...]. Bada, hala ere, bestelako botere bat, paradigma berrirako egokiagoa: boterea, gainerakoengan eragiteko ahalmen gisa. Botere mota hori gauzatzeko egitura ideala ez da hierarkia, sarea baizik. Sarea, ikusiko dugunez, ekologiaren metafora nagusia da» (Capra, 2002: 32).*

Jarraian, **neure gogoeta** batzuen berri emango dizuet. Gogoeta horiek politika publikoak taxutzeko parte hartzeko prozesuetan lagundu izanaren ildotik sortu dira. Esaterako, duela hilabete batzuk, Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Euskal Plana taxutzen parte hartzeko aukera izan nuen. Komunitate akademikoaren inguruko hainbat aipamen erabiliko dut, testuaren bukaeran batez ere. Hala ere, hitzaldiaren muinak aipatu prozesuetan parte har dezaketen benetako **agenteekin egin daitekeen elkarrizketaren** antz handiago izango du.

Hain zuzen, eta hasteko, merezi du azaltzea zer adierazi nahi dugun **politika publikoak** esaten dugunean. Adierazpide hori jarduera publikoaren ildo nagusiei dagokie. Ildo horiek, printzipioz eta legez, botere publikoetatik (parlamentuak edo gobernuak) datoz, eta eremu publikotik abiatuta, arlo zehatz batean egiten dena arautzen eta kontrolatzen saiatzen dira.

Hala, bada, hemen eta orain, politika publikoei behatzen badiegu, hainbat funtsezko gairi antzemango diogu. Lehenik eta behin, esan behar dugu, politikak **ez** direla **beti esplizituak**; hau da, dena ez dago esana, ez eta idatzia ere. Izan ere, askotan, botere publikoen ildo estrategiko garrantzitsuak ez dira jendaurrean azaltzen, ez eta modu argian formulatzen ere. Hala ere, onuragarria izango litzateke politikak esplizitu egitea; zenbat eta esplizituagoak izan, orduan eta aukera handiagoa izango delako gizarteak ekarpenak egiteko, modu demokratikoan kontrolatzeko, balioztatze zorrotzak egiteko, eta gaur egun nahiz etorkizunean politika horiek hobetzeko.

Halaber, argi geratu behar da aipatu **eremu publiko** hori ez dela muga argiak dituen lurraldea. Politika publikoen eragina ez da Estatuko aparatuek, nolabait esatearren, egin edo egingo ez dutena esatera mugatzen; izan ere, beste agente batzuetan eragina dutenez —ohiko enpresetan, hirugarren sektoreko erakundeetan, edo familia eta komunitateengan—, haiek ere politika horien gaineko interesa dute. Aipatu agente horiek guztiek hainbat modutako harremanak dituzte erakunde publikoekin, eta, ondorioz, bakoitzak bere moduan esku hartzen du erakunde horietan.

Hain zuzen, **gizarte konplexu** batean, agente motak areagotu egiten dira, eta, ondorioz, agenteen arteko harremanak ere bai. Aipatu bezala, horrek esan nahi du, botere publikoek hainbat modu berritan esku hartzen dutela pribatutzat jotzen ditugun eremuetan; baina, aldi berean, publikoak ez diren agenteek ere hainbat modu berriren bidez parte hartzen dutela politika publikoak taxutzeko eta garatzeko prozesuetan. Hori gero eta argiago ikus daiteke gure gizartean, gizarte-sare batean, hain zuzen. Izan era, gizarte eredu horren ezaugarri nagusia agente guztien arteko konektibitatea handitzea da, hots, hainbat alderdiren artean komunikatzeko aukerak areagotzea.

Horrek ez du esan nahi politika publikoek gizarteko bizitza osoa **arautu eta baldintzatu** behar dutenik. Esan denez, jarduera publikoak modu berrian eragiten dio gure bizitzari; baina, aldi berean, gero eta gehiago sortzen eta aldarrikatzen dira espazio eta gune berriak, eta han, norbanakoek, familiek, komunitateek, elkarteek eta gizarte zibilak eremu publikoaren eraginetik aldendu nahi dute, eskubide osoz. Gai horren inguruan izan den aldaketari umorez heltzeko, esan dezakegu, lehen, ezkontidea ez zen norbaitekin harreman sexualak zituenak, beldurra zuela horiek zituen bitartean harrapa zezaten. Hala, bada, harreman horien ondoren erretzen zuen zigarretak lasaitu egiten zuen. Orain, aldiz, arazoa kontrakoa da. Ez luke arazorik izango botere publikoek adulterioa egiten harrapatuko balute, baina bai erretzen ikusiko balute.

Politika publikoen inguruan esan beharreko beste kontu bat da, politika horiek zehazten eta taxutzen direla atzematen diren arazo edo gaien inguruan, hots, norbaitek arazo eta gai horiek **agenda publikoan** sartzen dituenen. Gai zehatz bati denbora eta dirua eskaintzea, are gehiago, gai horrek botere publikoen arreta bereganatzea, ez da berez gertatzen den zerbait, baizik eta gizartean eta historian gertatzen den prozesua.

Har dezagun egungo **adibide** bat. Azken urteetan mendekotasuna gai garrantzitsu bihurtzen ari da, eta, ondorioz, politika publikoaren xede ere bai. Esaterako, aurretik, elbarritasunari, bazterketari, gizarte zerbitzuei, edo pentsioei lotutako politiketan jorratu diren gaiak, modu berrian uler eta taxu daitezke mendekotasunari lotutako politiketan. Ez da soilik hitz eta paper kontua. Izan ere, halako aldaketetan, ikuspegiak, egiturak, agenteak eta baliabideak daude jokoan. Izan ere, aldaketa horrekin, barregarri uzten dira bai interesak, bai, azken batean, boterearen nondik-norakoak.

Bestetik, aurrekoa bezalako adibide batek argi erakusten digu arlo batzuen eta besteen artean diren lotura sakonak. Horregatik, politika publikoen kasuan, **zeharkakotasuna** aipatu ohi da. Hala, bada, ijito herriaren inguruko plan batean, zeharka, generoaren gaia azalduko da, hots, beharrezkoa dela planak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzen lagun dezan. Era berean, emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan batean, zeharka, gutxiengo etnikoen gaia azalduko da; betiere, planak, zuzenean edo zeharka, gutxiengo horien gizarteratzean lagun dezan.

Dena den, **ez da beti positiboa** arazoarentzat berarentzat edo arazoa duen giza talde batentzat politika publiko zehatz baten berariazko xede izatea. Batzuetan, politika horien xede izateak ez dakar onurarik, are gehiago, taldea edo haren egoera markaturik uztera eraman gaitzake. Horregatik, eztabaida sortzen da: talde edo egoera bat xede edo eremu gisa identifikatzen duten politikak aurrera eramatea, batetik, ala, bestetik, talde edo egoera horri berariazko politikarik aplikatu ez, baina ikuspegi adiskidetsuaren bidez, hainbat politikaren barruan sartzea. Eztabaida hori, batez ere, berreste ekintzari edo diskriminazio positiboari dagozkien politiken inguruan sortzen da. Politika horien bidez, hain zuzen, neurri onuragarri zehatz batzuk adosten dira talde edo egoera jakin batean bizi diren pertsonentzat.

Hala eta guztiz ere, esan behar da, politika publikoak, jarduera publikoaren ildo eraginkor gisa, hainbat modutan **islatzen** direla. Esan daiteke, legea dela politika publikoaren

adierazle formalik sendoena edo gorena. Halaber, bereziki garrantzitsua da, noski, politika horrek aurrekontuetan duen isla. Bestetik, gero eta sarriago erabiltzen dira zenbait tresna mota, hala nola planak (plan zuzentzaileak, plan estrategikoak, erakunde arteko planek, sail arteko planak, eta abar), agendak, gutunak eta bestelako dokumentuak.

Dena den, hitzaldi honetan interesa duena ez da produktu idatzia, baizik eta taxutze proiektua, hau da, politika publikoa eratzeko **prozesua**. Orain arte eman ditugun zertzeladek erakusten dute politika publikoen esparrua konplexua dela: adierazpenez eta interesez josia, agentez betea, hainbat erakunderen era elkarteren bidez antolatua, eta abar. Konplexutasun hori aberastasun iturritzat jo daiteke, edo, alderantziz, arlo hori opaku eta ulertezin bihurtzeko.

Hitz egin dezagun, bada, politika publikoak, hots, jarduera publikoaren ildo estrategikoak, taxutzeko, gauzatzeko, eta balioztatze erabiltzen diren prozesuei buruz. Heldu diezaiegun, bada, funtsean, **erabakiak hartzearekin** lotura duten prozesuak diren horiei, eta, azter dezagun erabaki horien kalitatea. Hain zuzen, horri lotua hasten da parte-hartze prozesuen gaineko gogoeta.

Erabaki politikoei buruz hitz egiteko orduan, adierazi behar dugu, sarritan, erabaki politikoa misterioz inguratuta dagoela gizartearentzat. Ematen du erabaki politikoak **leku sakraturen** batean hartzen direla, eta kaleko jende arruntak ez duela hara sartzeko modurik. Tenplu judutarren zati batean hautatuak baino ezin ziren sartu, eta kasu hau antzekoa da. Halaber, antza, laborategiaren moduko leku horretan, kanon eta prozedura bereziei jarraituz hartzen dira erabakiak, eta prozedurok pertsona jakitunen esku baino ez daude. Lan mahai sofistikatuak irudikatzen dugu; hara *benetako denborari* dagozkion datuak eta txosten handiak heltzen dira, eta erabaki egokia hartu baino lehen, esparruak eta ondorioak erantzukizun osoz aztertzen dira.

Hala era, askotan, erabaki politikoen eremuari ematen diogun irudi teknokratiko eta funtsezko horrek **oso ezberdina den errealitatea** ezkutatu besterik ez du egiten. Erabakiak bakartasunean hartzen dituen pertsonaren errealitatea; erabakia hartzeko orduan mila orriko txostenak baino, goizeko egunkarian irakurritako irakurleren baten eskutitzak eragina handiagoa duelako errealitatea; kanonik eta prozedurarik gabeko errealitatea; publikoak ez diren kanpo agente ezezagunen eraginaren errealitatea, eta abar.

Bide batez, muturreko bi estereotipo kontrajarri ditut, baina elkarrizketan zehar aukera izango dugu ezagutzen ditugun errealitateak bi mutur horien arteko zein puntutan kokaturik dauden aipatzeko. Dena den, hitzaldi honetan, erabakiak hartzeko prozesuak, hots, politika publikoak taxutzeko, garatzeko, eta haien segimendua egiteko prozesuak hobetzeko aukera ematen duen ezaugarri bati buruz hitz egingo dugu. Ezaugarri hori da prozesu horiek parte-hartzea sustatu behar dutela.

Ez dut luzatu nahi politika publikoen arloko parte-hartze prozesuen **ontasuna edo egokitasuna** justifikatzen. Arazoak eta demak konplexuak dira, eta gero eta agente gehiago daude inplikaturik. Hala, bada, parte-hartze prozesu horiek beharrezko agenteak engaiatu behar dituzte modu koherentean, eta bide eman behar dute aipatu arazo eta dema konplexuak modu egokian konpontzeko. Fenomenoen sare konplexuei erantzuna emateko, ziur aski, sare adimendunak, sentikorrak eta dinamikoak eraiki beharko ditugu.

Dena den, komeni da argitzea zer esan nahi dugun politika publikoen esparruko parte-hartze prozesuak diogunean. Hasteko, argi utzi behar da, prozesu horietan ez direla ezabatzen edo ahultzen parte-hartzaile bakoitzari dagozkion **erantzukizunak**, betebeharrak, eskubideak eta eginkizunak. Nire ustez, erantzukizun politikoak dituen pertsona batek —eta, ondorioz, erabaki zehatz bat hartzea dagokionak— ez ditu bere eskumenak eta erantzukizunak alde batera uzten, erabaki hori hartzeko parte-hartze prozesu batean murgiltzeagatik.

Jakina, ardurak dituen pertsona horrek, besterik gabe erabakia hartzeko aukera duen horrek, parte-hartze prozesua sustatzen, sortzen —edo, besterik gabe, onartzen— badu, nolabait, bere posizioa arriskatu du, ahulago bilakatzen da, psikologiaren aldetik behintzat. Hala ere, ez du inolaz ere ahaztu behar, azken batez, berak duela erabaki hori hartzeko legitimitate demokratikoa. Bide batez, ez du zertan parte-hartze prozesuaren aurka egin, kontrakoa baizik. Parte-hartze prozesuaren etsai handiena, nire ustez, haren gaineko **argitasun** falta da, bai eta prozesuan parte hartzen dutenen ahalmenen eta marjinen anbiguitasuna ere.

Hainbat **parte-hartze maila** edo mota egon daitekeela ere nabarmentzekoa da. Herritarren parte-hartzea eta demokrazia parte-hartzailea aztertzen dituzten pertsonak honako hauek aipatzen dituzte: informazioa, kontsulta, adostea, erabaki bateratuak eta kudeaketa bateratua. Nolanahi ere, parte-hartze prozesuetan hainbat esku-hartze eta engaiamendu maila egon daiteke, eta, nire ustez, argitasunez identifikatu behar da zer

itxaron daitekeen eragile edo erakunde bakoitzetik. Hain zuzen ere, prozesuko parte-hartzeak bateragarria izan behar du gaiari loturiko eragileek osatzen duten sarearen egiturarekin: engaiamendu handiena dutenek zuzenean eta indar handiagoz egon behar dute prozesuan. Betiere, al bait sartzeko aukera handiena izan behar dute politika horren zuzeneko hartzaileek.

Eta, mailen ildotik, parte-hartzeari buruz esan daiteke **parte-hartze handiagoa ez dela beti hobea**. Parte-hartzeak aurkako efektuak ere baditu, eta sute bat itzali behar izatekotan, ez da komeni batzarrean esertzea eta itzaltzeko estrategiei buruz eztabaidatzea. Alegia, sutea itzaltzera datorren suhiltzaile taldeko buruak esandakoa egitea komeni da. Horregatik komeni da parte-hartze aukerak eta parte hartzen duten pertsonen egiazko engaiamendua orekatuta dituzten sistemak eta prozesuak antolatzea. Hori ez egitea, geure buruaren aurka egitea litzateke.

Izan ere, onartu beharra dago **hezkuntzak** eta kulturak ez gaituztela bereziki prestatu parte-hartze prozesuetarako. Askotan, gure biografietan, erakundeetan, jarreretan, trebetasunetan, ez ditugu parte-hartzera bultzatuko gaituzten aurrebaldintzak. Hala ere, hori ez dut esaten parte-hartzerik gabeko dinamikak justifikatzeko, errealismoz aurre egiteko baizik.

Egia esan, prozesuetako parte-hartzea **landare ahula** da, eta kontu handiz ureztatu behar da. Beste batzuetan, tronpeta soinu karrankaria izaten da, eta modulatu egin behar da. Batzuetan, boterearen edo prozesua koordinatzen duen pertsonaren aurkako eraso izaten da, eta eraso horri leunki egin behar zaio aurre. Laburbilduz, parte-hartzea era askotakoa izan daiteke, eta parte hartzeko era horiek guztiak gure trebetasunez bateratu behar dira. Parte-hartzen dutenak sustatu egin behar dira, nahiz eta lerroak beti zuzenak ez suertatu, batez ere hasieran.

Izan ere, parte-hartze prozesu guztiak taldea sortzeko prozesuak dira nolabait, hots, gutxika garrantzi handiagoa hartzen dutela eta sortzen den prozesuaz nahiz produktuaz hein handiagan jabe direla sentitzen duten eragileen **sarea eratze**ko prozesuak. Horretarako, garrantzitsua da parte-hartzaileek produktu horretan beren marka atzeman dezaten. Bizkotxoa jatean, zeuk jarri zenuen fruta pusketa aurkitu behar duzu. Pertsonak gehien motibatzen dituen, eta pertsonen onena ateratzen duena ekarpenak balioestea da. Ez zuzenean onartzen direlako, baizik eta kontuan hartzen direlako eta parte-hartzaileen multzoak aintzat hartzen dituelako. Eragileek hainbat aldetik duten

heterogeneotasuna eta **aniztasuna** kontuan hartzekoa da (sexua, kultura, adina, funtzioa, eta abar). Parte hartzen duten eragile guztien duintasuna eta eskubideak gorde eta defenditu egin behar dira.

Nire ustez, eragileen sare hori eratzea **prozesuaren efektu** interesgarria izan daiteke; produktu idatzia bera bezain interesgarria, hain zuzen. Izan ere, ziurrenik eragileen sare horrek ahalbidetuko du hein handian erabakitzen dena gauzatzea, hots, politika gauzatzea eta efektua izan dezan bermatzea. Guztiak barne hartzen dituen parte-hartze sarea eraiki behar da, eragile interesdun edo eragindako guztiek parte hartzeko eta ekarpenak egiteko modukoa. Horrek politika aktiboak eta integratzaileak eraikitzeko sistema egokia dirudi, eta gaur egun politika publikoek halakoak izan behar dute.

Egia esan, prozesu mota hauek, dokumentuak taxutzeko eta ibilbideak gauzatzeko balio izateaz gain, **gizarte kapitala** sortzen dute. Gizarte kapitala gizartean dauden arau multzoen edo sareen nahiz elkarrekikotasun eta konfiantza harremanen multzoa da. Harreman ondarea sortzen dugu, bai eta ezagutzako, hizkuntza komuneko eta jakintzako ondarea ere, eta horrexek lagunduko digu zehazten ari garen politikak gauzatzeko. Esaldi ezagun bat dago horren inguruan: helburua lortzeko koska baliabideetan dago, zuhaitza hazian dagoen bezalaxe.

Gainerakoan, parte-hartze prozesuei dagokienez, garrantzitsuagoak ematen dute **jarrerak eta egiturek** hitzaldiek eta adierazpenek baino. Are gehiago, parte-hartzearen ildotik, ematen du gehiago aipatzen dugun heinean, gehiago ihes egiten digula edota izozten zaigula. Parte-hartzeak ematen du harremanaren, ekintzaren edo elkarrizketaren unean baino sortzen eta partekatzen ez diren harremanezko ondare horietakoa. «Parte har ezazue» mezua —«lokar zaitetzte» mezua bezalaxe— batzuetan mezu tranpatia izan daiteke, *inposatzen* saiatzen baita, *berez azaleratu* baino egin ezin dena.

Ikus dezagun honela: agian, pertsonen **egoera naturala** ekintza, elkarrizketa, partaidetza da. Agian identifikatu egin behar da zein oztoporen eraginez saihesten den egoera natural hori azaleratzea eta sortzea. Agian egoera behar bezain argi ez planteatzea, ahozkoa ez den mezu eragozlea, tokiaren antolamendu fisikoa horretarako lagungarria ez izatea, eta abar izan daiteke oztopo hori. Agian, azken batez, beti ez gaude ziur eragileen arteko elkarreraginetik neuk buruan dudana (edo kontratatu nuen aholkulariak duena) baino hobea den zerbait aterako ote den. Beharbada zaila egiten zaigu elkarrizketa sare horretan murgiltzea.

Baina, oztopoak egonagatik ere, parte-hartzea **errazten** duten elementuak ere badaude. Horietako bat, zalantzarik gabe, informazio eta komunikazio teknologia aurreratuak dira. Esaten ari naizen hau, oraintxe bertan edo ordu batzuk barru, nire webgunean jar dezaket, eta nik esaten dudana ezagutzeko aukerak mugagabe handitzen dira. Aukera horiei jarrera gardena gehituta, hots, argi eta garbi jokatzeko jarrera izanez gero, aukera ugari sortzen da. Nolanahi ere, ez da ahaztu behar espazio birtuala laguntza izanagatik ere, espazio soziala haren aurretik eta azpitik izatea beharrezkoa dela. Teknologiak aukerak ematen ditu, baina gakoa harremanetan dago.

Jakina, harreman horiek prozesuari ematen zaion **egituraren** araberakoak dira. Horregatik, garrantzitsua iruditzen zait prozesuaren **diseinuari** berari denbora eskaintzea. Prozesuaren hasieran denbora asko ematen da haren diseinua adosten eta espazioak nahiz lan sistemak antolatzen. Denbora hori onuragarria da ikuspegi guztietatik. Eta lehen unetik, eragile guztiek ikusten badute diseinuaren aldetik irekitasuna dagoela, ezagutzak eta trebetasunak bateratu egiten dira; izan ere, prozesu hori ikaskuntza kolektiboko prozesua da. Diseinuan doitasun handiz jaso behar dira gaiak irekitzeko eta erabakiak hartzeko uneak.

Baina esperientziak adierazten digunez, parte-hartze prozesuetan **aitzindaritza** handia behar izaten da. Moteltasunaren, nahastearen eta denbora galtzearen sentipenak sortzen badira, eragileek motibazioa galtzen dute, bai eta prozesuarenganako konfiantza ere. Hortaz, irekitasunak eta malgutasunak bateragarriak izan behar dute antolamendu argiarekin eta prozesuaren kudeaketa proaktiboarekin. Hartara, zati bateko helburuak lortu ahal izango dira, eta helburu horiek aurrera egitea sustatzen eta bultzatzen dute. Gauzatzen diren jarduerak jakinarazteko politika argia eta, nolabait, errepikakorra oso egokia izaten da. Zoritxarrez, honetan guztian ezin izaten da aurretik ezarritako ereduekin edo magia errezetekin jardun.

Amaitzeko, jakina, jabetuta nago eraiki eta sor ditzakegun parte-hartze prozesuek **oztopo** handiekin talka egin dezaketela. Ez dugu sineskorak izan behar, ez dugu pentsatu behar parte-hartze prozesuak gizarte gatazken, egitura bidegabeen edo jakineko balio errotuen gainetik daudenik. Badakigunez, sarritan baldintza objektiboek parte-hartze prozesuak eragozten dituzte. Badakigu testu ederrak testuingurutik kanpo idazteko edo testu ederrak jakineko testuinguruak ezkatatzeko erabiltzeko arriskua dagoela.

Are gehiago, gure parte-hartze prozesuek egiturako, jarrerako edo kulturako **oztoporik** ez dutenean, errealitate egoskorren trinkotasuna sentitzen ez dugunean, *materialen erresistentziari* antzematen ez diogunean kezkatu beharko dugu gehien; izan ere, gauzatzen ari garen eraikuntza parte-hartzaileko prozesuak ez du inpaktu politiko errealik izango, eta ez du gizartea egiazki eraldatuko.

Nolanahi ere, ziur nago, maiz, egitura, jarrera eta gizartean finkaturiko balio horiek tartekak eta **aukerak** uzten dituztela, eta horiek aprobeztatzen ikasi behar dugu. Hori agerikoa da espioi nobeletan, batez ere Gerra Hotzekoetan; izan ere, irakurtzen dituzun bitartean, inoiz ez dakizu neska eta mutila bando berekoak ote diren, espioi bikoitzak edo hirukoitzak ote diren, eta abar. Askotan, mutilak berak edo neskek berak ez daki egiten ari dena egiazki bere helburuen aldekoa edo aurkakoa den. Azkenean, gehienetan, neska eta mutila beren ekintzen zentzuaz jabetzen dira, eta jakiten dute fidatzea edo lankidetzan aritzea badagoen. Horrek guztiak zerikusia du senak esandako zerbaitekin, eta pertsonen arteko harremanean distantzia motzetan eratzen den zerbaitekin. Uste dut antzeko zerbaitekin gertatzen dela parte-hartzearekin.

**Tximeleta efektuaren** arabera, tximeleta batek hegotei eragiten badie Brasilen, Texasen tornadoa sor daiteke. Horren ildotik, parte-hartze aktiboa, argia eta sentikorra izaten badugu prozesuan, ez dakigu lehenago edo geroago noraino irits daitezkeen gure ekintzen ondorioak.

Ikus daitekeenez, hainbat ideia solte azaltzen saiatu naiz soilik, elkarrizketa eran, kafea hartzen ariko bagina bezala. Aitorpenak egin ditut eta nire iritziak adierazi, lagunekin elkarrizketa lasaietan egiten den bezalaxe; izan ere, horixe da gure kasua. Amaitzeko, **elkarrizketak** aurrera egin dezan asmoa adierazi nahi dut; zuekin mintzatzen jarraitu nahi dut, zeuok ere hala nahi izanez gero, aipatu dizkizuedan lehen gogoeta hauek oinarri hartuta.

Eskerrik asko.

Erreferentziak:

- BLANCO, I. ETA GOMA, R.: *Gobiernos locales y redes participativas: retos e innovaciones*, 2003 (<[www.clad.org.ve](http://www.clad.org.ve)>).
- BONVIN, J.M. ETA VARONE, F.: «Nueva gestión pública y participación ciudadana» in *Políticas Sociales en Europa*, 17 (2005eko martxoa), 105-115.
- BRUGUE, Q. : «Participación y gobierno. Una mención especial al colectivo de mayores» in García Crespo, M. eta beste zenbait egile: *Las personas mayores en el umbral del siglo XXI. IV Jornadas. Ciudadanía y administraciones públicas. Hacia nuevas formas de relación. La opinión de los mayores*, Hartu Emanak, Bilbo, 2005, 21-36.
- CAPRA, F. : *La trama de la vida*, Anagrama, Bartzelona, 2002.
- FANTOVA, F.: *Manual para la gestión de la intervención social*, CCS, Madril, 2005.
- GARCIA ROCA, J.: *Políticas y programas de participación social*, Síntesis, Madril, 2004.
- JEREZ, A. (koord.): *¿Trabajo voluntario o participación?: Elementos para una sociología del Tercer Sector*, Tecnos, Madril, 1997.
- LOPEZ DE CEBALLOS, P.: *Un método para la investigación-acción participativa*, Popular, Madril, 1987.
- NABASKUES, I.: *Globalización y nueva política local*, IVAP, Gasteiz, 2003.
- RESTREPO, D.I.: *Las practicas participativas: entre la socialización y la privatización de las políticas públicas*, 2003 (<[www.clad.org.ve](http://www.clad.org.ve)>).
- ROMERO, A.: *Los retos de una acción voluntaria integral. La participación del voluntariado en el desarrollo de la comunidad local*, PPVE, Madril, 2004.
- SANCHEZ ALONSO, M.: *La participación: Metodología y práctica*, Popular, Madril, 1991.
- SARASA, S. ETA GUIU, J.: «El Consejo Municipal de Bienestar Social de Barcelona» in FONT, J.: *Ciudadanos y decisiones públicas*, Ariel, Bartzelona, 2001, 125-137.
- SCHON, D.: *El profesional reflexivo. Cómo piensan los profesionales cuando actúan*, Paidós, Bartzelona, 1998.
- SUBIRATS, J.: *Redes, territorios y gobierno*, Diputacio de Barcelona, Bartzelona, 2002.
- SUBIRATS, J.: *¿Qué gestión pública para qué sociedad? Una mirada prospectiva sobre el ejercicio de la gestión pública en las sociedades europeas actuales*, datarik gabe (<[www.top.org.ar](http://www.top.org.ar)>)
- VILLASANTE, T.R.: *Las democracias participativas: De la participación ciudadana a las alternativas de sociedad*, HOAC, Madril, 1995.

<[www.alboan.org](http://www.alboan.org)>

<[www.bakeaz.org](http://www.bakeaz.org)>

<[www.clad.org.ve](http://www.clad.org.ve)>

<[www.emakunde.es](http://www.emakunde.es)>

<[www.fundacionalternativas.com](http://www.fundacionalternativas.com)>

<[www.gizaetxe.ejgv.euskadi.net](http://www.gizaetxe.ejgv.euskadi.net)>

<[www.iadb.org](http://www.iadb.org)>

<[www.iesam.csic.es](http://www.iesam.csic.es)>

<[www.iigov.org](http://www.iigov.org)>

<[www.ingurumena.net/Castellano/Sostlocal/Us21/udalsarea21.htm](http://www.ingurumena.net/Castellano/Sostlocal/Us21/udalsarea21.htm)>

<[www.partehartuz.org](http://www.partehartuz.org)>

<[www.unesco.org/most](http://www.unesco.org/most)>